

europapress / país vasco / euskera

## Geza Toth EHUko ikertzaileak Friedrich Wilhelm Bessel saria jaso du

Actualizado 2019/8/9 14:13:21 CET



- EHU - Archivo

### BILBO, 9 (EUROPA PRESS) -

**Geza Toth** Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historiaren irakasleak Alexander von Humboldt Fundazioak ematen duen **Friedrich Wilhelm Bessel ikerketa saria jaso du**. Nabarmentzekoa da bere lorpena, estatuan beste hiru lagunek soilik lortu baitute sari hau, EHUK jakinarazi duenez.

Alemaniko Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioak sortutako sari hau Alemaniatik kanpo bizi diren eta nazioartean ospea duten ikertzaileei ematen diete, beren abangoardiako ikerketa lorpenen errekonozimendu moduan, dagokien diziplinan funtsezko eragina izateagatik eta ikerketen etorkizunean potentzial handia izateagatik. Kasu honetan, Gezak optika kuantikoaren, informazio kuantikoaren zientziaren eta gurutzatze kuantikoaren teoriaren arloetan gauzatutako lanagatik eskuratu du saria.

"Irabazleak ikerketa erregistro bikainengatik ohoratzen dituzte, eta Alemanian urtebeteraino pasatzera gonbidatzen dituzte adituekin lankidetzan ikerketa proiektuak gauzatzeko", azaldu du Tothek. Sari honi esker, sei hilabete emango ditu Alemaniako hainbat zentrotan bere ikerketa alorreko proiektuetan lanean.



## Vuelta al cole: potencia el desarrollo de tus hijos

Los niños son pura energía. Sus ingeniosas ocurrencias son brillantes chispas que nos colman de orgullo y alegría. ¿Pero conoces las mejores técnicas para fomentar la creatividad de nuestros hijos?

Presentado por **RIC® Kids**  
Privacidad